



JARRAIBIDEA, 2021EKO MAIATZAREN 5EKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, AHAIDEEN GAIXOTASUN LARRI ETA HERIOTZAGATIKO BAIMENEI BURUZKO EPOEREN ARAUDIA EGOKITZEARI BURUZKOA.

2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legearen bidez egindako aldaketen ondorioz, EPOEren 48. artikulua a) eta f) letrak aldatu dira.

Lan Harremanen Zuzendaritzaren 1/2021 Zirkularren bidez, gaixotasun larri eta heriotzagatiko baimenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko funtzionarioei aplikatu beharreko araudia egokitu da. Jarraibide honen bidez, Hezkuntza Saileko langileei aplikatu beharreko araudia egokitzen da, aipatutako zirkularrean xedatutakoaren arabera:

"Behin eta berriz errepikatzen den irizpidea da EPOELTBren 48.a) artikuluan aurreikusitako baimenaren helburua, "beste herri" bat denean egun kopurua luzatzearekin batera, baimena sortu den lekura langilea joan ahal izatea erraztea dela. Kontuan hartu behar da EPOELTBren 48.a) artikuluan hiru egunetik bostera edo bitik lau egun baliodunera luzatzeko baldintza bakarra dela gertaera "beste herri batean" gertatzea, eta ez dela inolako betekizunek ezartzen distantzia kilometrikoari, garraio bideei edo bestelako alderdiei dagokienez, baimena luzatzeko eskubidea ezartzeko edo ez ezartzeko. Hori dela eta, interpretazio bidez ezin da sartu baimena emateko baldintza gehiago, ordenamendu juridikoak unean-unean ezartzen dituenak baino.

Hala ere, EPOELTBk joan-etorria behar den kasuetarako dituen bi egun baliodun gehigarri horiek, gure akordio arautzaileak eta hitzarmen kolektiboak soilik aurreikusten zituzten gertaera eragilea 150 kilometrotik gorako distantziara gertatzen denean. EPOELTBk gure akordioetara jasota zeuden kasu batzuk hobetzen dituen heinean, jaso egin dira, eta EPOELTBk hobekuntzarik ematen ez duen kasuetan, lehendik zegoenari eutsiko zaio".

Horregatik guztiagatik, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluan emandako eskumenekin bat etorriz, Zuzendaritza honek honako hau xedatzen du:



INSTRUKZIOA

Lehenengoa.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko langileen senideen gaixotasun larri edo heriotzagatiko lizentziari aplikatu beharreko araudia berrikusiko da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioak (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 43. artikuluan jasotako araudia).
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko lan-kontratuko irakasle eta hezitzaileak (2004-06-17ko EHAA, 24. artikulua).
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Garbiketa eta Sukaldaritza Saileko lan-kontratuko langileak (2009-03-31ko EHAA, 28. artikulua).
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko erlijjioko lan-kontratuko langileak (2004-02-13ko EHAA, 20. artikulua).

Bigarrena.- Egokitzapen horren ondorioz, ahaideen gaixotasun larri edo heriotzagatiko lizentzia honela arautzen da:

- **Ezkontidearen, bikotekidearen edo semearen edo alabaren heriotzagatik, istripuagatik edo gaixotasun larriagatik, ospitaleratzeagatik edo etxean atseden hartzea eskatzen duen ospitaleratzerik gabeko ebakuntzagatik:**
 - **5 lanegun, oro har, eta 2 egun natural gehiago gertakaria 150 km baino urrunago gertatzen bada.**
- **Odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko lehen mailako senide baten heriotzagatik, istripuagatik edo gaixotasun larriagatik, ospitaleratzeagatik edo etxean atseden hartzea eskatzen duen ospitaleratzerik gabeko ebakuntzagatik:**
 - **3 lanegun, gertakaria udalherri berean izan bada, eta 5 lanegun, beste udalherri batean gertatu bada.**



- Odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko senide baten heriotzagatik:
 - **3 lanegun**, gertakaria **udalherri berean** gertatu bada; **4 lanegun**, gertaera **beste udalherri batean** gertatu bada; eta **beste egun natural 1**, gertaera **150 km baino urrunago** gertatu bada.

- Maila urrunagoko senide baten heriotzagatik, elkarrekin bizi badira:
 - **3 lanegun**, oro har, eta **2 egun natural gehiago** gertakaria **150 km baino urrunago** gertatzen bada.

- Odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko senide baten gaixotasun larriagatik, ospitaleratzeagatik edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ospitaleratzetik gabeko ebakuntzagatik:
 - **2 lanegun**, gertakaria **udalherri berean** izan bada, eta **4 lanegun**, beste **udalherri batean** gertatu bada.

- Urrunagoko graduko senide baten gaixotasun larriagatik, ospitaleratzeagatik edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ospitaleratzetik gabeko ebakuntzagatik, elkarrekin bizi badira:
 - **2 lanegun**, oro har, eta **2 egun natural gehiago** gertakaria **150 km baino urrunago** gertatzen bada.

Hirugarrena.- Beste udalherri baten irizpidea langilearen bizilekuari dagokionez ulertu behar da.

Laugarrena.- Istripua, gaixotasun larria, ospitaleratzea edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ospitaleratzetik gabeko ebakuntza gertatuz gero, egoera hori medikuaren ziurtagiri bidez egiaztatatu beharko da.



Hirugarren atalean ezarritako baimen-egunak hartzeko, baimena eragin duen gertakariak iraun egin beharko du, hau da, ospitaleratzearen kasuan, ospitaleratzeak baimenaren egunetan iraun beharko du.

Ospitaleratu gabeko ebakuntzaren kasuan, etxean atseden hartzea eskatzen bada, ebakuntza kirurgikoa egiaztatzen duen mediku-egiaztagiriaz gain, etxean atseden hartzeko behar diren egunak justifikatzen dituen mediku-txostena ere beharko da.

Bosgarrena.- Batzorde Paritarioak ezarriko ditu etxean atseden hartzea zer den zehazteko irizpideak. Zalantzak sortzen diren kasuetan, Prebentzio Zerbitzuko Arlo Medikoak halakotzat jotzen duena hartuko da halakotzat.

Seigarrena.- Jarraibide hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da (<https://www.euskadi.eus/langile-irakasle-lizentziak-baimenak/web01-a3hklair/eu/> eta <https://www.euskadi.eus/lizentziak-eta-baimenak/web01-a3hklai/eu/>).

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 5a.



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIA